


# FEDE GOGOAN

## Mendiko lagunak



Fede Mendibil (1973)

*Diogenes, upel batean luzaro biluzik bizi izan zen Greziako filosofo zirtolari huraxe, behin agertu omen zen azokan kriseilua eskuan, zerbaiten edo norbaiten bila balebil bezala. Eguerdia zen eta jendez gainezka zegoen plaza. Harri eta zur geratu ziren guztiak Diogenes halako lantegian ikusirik. Zer bilatzen zuen galdetu ziotenean, berak maltzur erantzun: gizon bat.*

*Antza denez, Diogenesek ez zuen ganorazko gizakumerik ikusten bere inguruan, eta kandela piztuta, gau ilunean bitxia galdu duenaren gisa, bilatu behar izan zuen ganorazko gizakia, azokan eta egun argitan. Hala ere, egun hartan ez zuen zorte handirik izan filosofo zirtolariak.*

**G**aur egun, zorionez, Diogenesek ez luke berdin jokatu beharrik izango ganorazko pertsonak aurkitzeko; izan ere, erruz baita jende mota hori gure inguruan.

Bai, halaxe da: urre fin asko bizi da gure artean. Ohartu ez bagara ere, denak ezagutzen ditugu halako pertsonak. Hauek dira bihotz handiko jendea, adiskide onak, hiritar zintzoak, langile finak edota guraso maitagarriak. Hauek ikusteko, begiak zabaldu eta inguruan begiratu besterik ez dago, ez daukagu kriseiluaren beharrik. Pertsona osoak dira, leial eta lagunak lagun, ogi puskak. Ez ditugu kausituko plazan jende aurrean, prentsan edo telebistan, zeren jende xumea izanik, isilean erakutsiko baitute beren bihotzaren gozoa: erdi ezkutuan egiten dute beharra eta, gertukoek izan ezik, beste inork ez du ikusten haien izerdia eta emana. Nabarmendu gabe bizi eta ia inor ohartu gabe joaten dira gure ondotik. Aldarerik ez dute izaten elizetan, ez eta oroitarrik ere plazetan; baina, joaten direnean, etxean eta etxekeen bihotzean, lanean eta lagunak artean, itzelezko hutsunea uzten dute, egundoko ahaleginak eginda ere, bete ezina.

Halakoa zen Fede, kilate askoko urrea, gizon osoa eta paregabea. Haren baranoan ibili ginenok ederki asko egiazta genezake hori, maiz egin baitzigun argi haren gizatasun-distirak. Diogenesek egunotan edo bere garaian ezagutu izan balu, seguru gaude ez zela gizonaren bila abiatuko, eta plazan Fede bera erabiliko zuela argi-mutil eta giza eredu. Baina zoritxarrez, orain ezinezkoa da, bere itzala baino ez baitugu gurekin: aurreko urtearen amaieran, Gabon egunean hain zuzen –Gabon esan beharrean, Goizgaizto esatea hobe–, agur egin zigun betiko. Orain, laguna joan denean, ari gara haren itzalaren hedaduraz jabetzen eta haren beneta-

ko balioaz ohartzen. Ohi bezala, hontzaren modura –hontza arrastirian hasten da hegan–, berandu konturatu gara horretaz, eta laudoriozko egia hauek ezin dizkiogu zuzenean aitortu, eta orain ezin jokatu harekin merezi bezala.

Diogenesen pasadizoarekin hasi banaiz ere, ez pentsa Fede Diogenesekin pareka daitekeenik. Ez alajaina! Diogenesek txakurrak bezala bizitzea erabaki zuen kalean, eta txakurrek bezala, kalean egiten zituen bere behar guztiak: harremanak izan, jan, edan, lo, kaka, txiza, txortan... dena egiten zuen jende aurrean, lotsarik gabe. Pertsona bilatzen zuen, ganorazko gizona aurkitu nahi zuen, baina bera halako gizona ote zen? Baliteke. Ez dakigu. guk seguru daukaguna zera da: Fede gizon zela, gizon bizi eta gizon joan zitzaila.

### Fede

Ezagutu ez zutenentzat hona hemen hitz gutxitan haren argazkia.

Fede Mendibiltarren etxekoa zen. Errenterian jaioa, nahiz eta ezkonduz geroztik Oiartzunen bizi. Irakasle zen lanbidez, baina lege-gizon bihotzez. Euskaldun petoa eta hitzaren maitale. Gizatasuna zuen ikur; burua galtzen zuen bakarrik axolagabekeriaren aurrean edota jendeak begirunez eta adeitasunez jokatzeko ez zuenean. Lagunartea maite zuen, mendia eta itsasoa bezala. Sukaldari ona zen, eta txistulari hobea. Sentibera izanik, musikarik gabe ezin ulertu gaua eta eguna. Bizialdi luzerik ez zuen izan, baina ederki asko atera zion etekina Parkek eman zioten bizitzari: ezer gutxirekin jakin zuen ongi bizitzen, eta ederki bizitza ele bilakatzen.

### Gizon ona batez ere

Behinola bere ikasle izandakoaren bisita izan zuen bulegoan. Gaztea droga munduan ibilitakoa zen eta, arartekoari gutun eskaera egin behar zionez, Federengana jo zuen laguntza eske. Arratsalde osoa behar izan zuten hura egiteko, zeren mutilak ez zituen ideiak oso garbi eta idatzitakoarekin ez zen konformaeraza. Lana bukatu, pozaren pozez alde egin zuen gazteak, idatzia eskuan eta bi mila pezeta patrikan, ezen egindako lanarengatik pagatu beharrean, Federi dirua atera baitzion sosik gabe zebi-

lela aitzakiatuz. Harrezkero, behin baino gehiagotan izan zuen ikasle ohiaren bisita bulegoan, bi helburu beti gogoan: abokatu-premia ase eta dirua atera. Eta guztietan ongi asebeterik atera zela esan behar. Halako jokabidea zenbat alditan izan zuen Fedek lagunekin eta jende behartsuekin? Ehunka.

\* \* \*

Behin haur ijito bat harengana hurbildu eta jateko dirua eskatu zion. Fedek, eskuzabala izaki, billete bat eman zion. Berarekin zegoen lagun bat, hori ikusita, harritu egin zen eta erdi errieta egin zion esanaz: “Ez du merezi horiei dirua ematerik, zeren jaso bezain laster litxarrerietan xahutzen baitute ondoko izozki-dendan”. Hori entzunda, Fede ezin isildu eta zera adierazi zion: “Haur ijitoak ere ez al du eskubiderik edozein haurrek bezala izozkiak jateko, ala?”. Mutu geratu zen laguna, zer erantzun ez zekiela.



Posets (Agosto de 1988)





Brecha de Roland (Agosto de 1990)

### Mendian: lagunen lagun

*Adiskide kuttun, lagun zorigabe,  
azpildu gabeko biotzaren yabe...*

Lizardi

Hilean behin joaten ginen mendira. Urdaburu Mendi Taldeak antolatzen zuen txangoa. Egun-pasa egiten genuen hango lagunekin: goizean goiz atera eta ilunabarrean itzuli. Egun osoa etxetik kanpo. Festa eguna. Lagunartean ibiltzeko aukera ezin hobea.

Noranahi joaten ginela ere, ibiltzen hasi aurretik ohiko errituala egiten genuen autobusaren inguruan: ibilaldirako arropa egokiak jantzi, motxila atondu eta, energiak berritu behar zirelako aitzakiaz, pulamentuz gosaldtu, zahato eta guzti.

“Lagunok, oraindik bero dago tortilla!”, aditu eta hantxe ginen hogeit hamar lagun inguru Federen ondoan, berak goizean etxetik atera baino lehen prestaturiko tortillatik gure zatia jasotzeko pronto. Tortilla-akuilua zela-eta, a zer-nolako giroa! Festa hasteko premiazkoa. Egina zegoen taldea, eta ibiltzeko prest guztiok.

Kontu-kontari abiatzen ginen, eta Federico genuen beti saltsa guztien perrexila; hitz egiten zuen bakoitzean, bazuen zerbait denon arreta bereganatzeko, zeren denetik zekien beti zerbait; hala ere, ez pentsa inguruko hitz-jale zenik: beti aditzeko prest zegoen, bestearen iritzia edo adierazpena edozein zela ere. Ahuleziak jota norbait pattal ibiltzen bazen, laster izango zuen Fede bere atzean laguntzaile, animu-emaile eta, behar izanez gero, zamari, lagun eroriaren motxila haren bizkarrean eramateko. Kera bakoitza zerbait pikatzeko tenorea zen; gure lagunak poltsa zabaltzen zuenean, ematen zuen magoaren txisterarekin ari zela, haren barrunbetik denetik eta denontzat ateratzen baitzuen. Hasierako giroak pizturik segitzen zuen, bera beti ardatz.

Ibilaldiaren amaieran, itxiera ekitaldia: berriz ere otoruntza. Ibilaldiko unerik politenetarikoak, dudarik gabe. Lagun guztiok mahai baten inguruan esertzen ginen. Ahal izanez gero tabernan, bestela ahal genuen tokian (pilota-lekuan, eliza bateko aterpean, balkoi baten azpian edota erreka baten ondoan) eta ahal bezala (lurrean eserita edo zutik). Gosarian bezalatsu, hogeit hamar lagun biltzen ginen –pentsaera eta jatorri diferentekoak guztiok–. *Agape* hartan nork bere janariak eta edariak ateratzen zituen motxi-



Añamendi (Agosto de 1991)

## Gailurretik zerura

FEDE GOGOAN



GAILURRETIK ZERURA

*La Cebollera mendia, Federen azken handia*  
2002ko ekaina



latik eta mahai gainean jarri, denon agerian. Jaten hasteko *Buffet-a* prest zegoen. Bakoi-tzarena guztiontzat, eta alderantziz, guztio-na norberarentzat. Jana oso garrantzitsua izanik ere, are garrantzitsuagoa zen orduan hango lagunarteko giroa, hitza, umorea, katarsia, elkar ezagutzea. Hor ere Fede zen erreferentea. Berak sustatu eta elikatu egiten zituen bilkura horiek. Denbora gutxian, lagun bakan batzuk izatetik talde handi bat izatera pasa ginen, *fitxaje* gehienak gure lagunak eginak.

Hango giroa ikusita, ez zen harritzekoa behin gutako lagun batek esandakoa: “Fede ezagutu ondoren ulertu eta sinistu nituen bakarrik Lizardik Onuzki adiskideari Agur

poeman idatzi zizkion bertsoak: *Adiskide kuttun, lagun paregabe/ azpildu gabeko biotzaren yabe...* Izan ere, Fede izan da niretzat adiskidearen eredu. Haren ondoan egonda, gizatasunaren lezioa jasotzen nuen beti”.

### Oraindik bizirik

Fede joan egin zitzaigun, bai, baina ez zen zendu, oraindik ere oso bizirik baita gure gogoan. Gure bihotzean haren argizaiolak pizturik dirauen bitartean, ezin esan zendu zenik, oraindik ere *bada-eta* gure artean.

*Mendiko lagunak*



Teideko puntan (3700 m) (Abril de 2000)



Cima del Montemayor. Alava (734 m) (17 de junio de 2000)